

HERRI MUSIKA KONTZERTUAK

UDAZKENEKO KONTZERTUA

2017ko urriaren 7an - 18:30 - Auzokalte elkartean

JOAN FRANCES TISNER

Tralhaires



Abeslaria, musikaria eta sortzaile-kompositorea, ikuskizunen asmatzailea da Joan Francés Tisnèr.

Berekin topo egitea bere baitan duen umorea erakusten duten aurpegia, irribarrea eta ahots berezia atzematea da.

Bere hots unibertoak okzitaniar abesti herrikoiak eta konposizioak, danburiarekin lagundutako ahozko inprobisazioak, oinekin egindako perkusioa, akordeoi diatonikoa ematen dizkigu, baita elektroakustika indartsua nekazal eta hiritar inguruan ere.

Dantzaldia Joan Francés erakartzen duen giro bat da; dantza, aldiz, inspi-

ratzen duen une bat.

Bere artista ibilbidean ez dio inongo unetan dantzariekin duen harremana zaintzeari utzi; abestia eta dantza, abeslaria eta dantzaria bat egitea lortzen duen harremana.

Gaur egun lana hainbat artistarekin egiten du eta Tralhaires emankizunean Jakes Aymonino, Francés Dumeaux eta Domenja Lekuonarekin osatzen du taldea.

Joan Francés Tisnèr bera da proiektu honetan konposizioan eta hots espazioa sortzen aritzeaz gain kantatzen duena. **Jakes Aymonino** ahotsarekin, soinu-tresnekin eta zuzene-

neko difusioarekin aritzen da. **Francés Dumeaux** da elektronika konposizioak, hotsen tratamenduak eta makinaren ardura duena. Azkenik, **Domenja Lekuonak** testuak irakurtzen ditu eta difusioan ere aritzen da.

TRALHAIRES

Proiektu honen sorkuntzan Joan Francés-ek abiapuntua 1844 eta 1921 artean bizitu zen Félix Arnaudin etnologo gaskoiaren lanean jarri du. Jaio eta hil Landetako erdialdean dagoen Labouheyre herrian egin zen Félix Arnaudin, eta bere bizitzako zati handia bere herrialdean dagoeneko abia da handian aldatzen ari zen bizimodu dokumentatzen eman zuen. Makina bat argazki, kontakizun eta kantu bildu zituen. Hala, Landetako herri memoriaren erreferentziatzko lana egin zuen.

Lanaren zuzeneko emanaldian Félix Arnaudin-en argazkiak proiektatzen dira eta haiei hots paisaia, kantuek, ipuinak, atsotitzak, eta *Journal et Choses de l'Ancienne Lande* liburuko pasarteak eransten zaizkie.

ETA
GOIZEAN

GASKOINIAKO DANTZA KANTATUAK

Lekua: ARDITURRI
Arditurri Meatze Gunea
20180 Oiartzun

Eguna: 2017-10-07

Ordua: 11:30

Joan Francés Tisnèr musikari okzitaniarrak Gaskoiniako dantzei buruzko tailerra emango du. Dantza hauek KANTATU egiten dira eta, jakina, DANTZATU. Bereziki helduei zuzendutako tailerra da.

ALAN GRIFFIN

Infernura erdibidean



Alan Griffin sortzez irlandarra bada ere urte ugari daramatza Euskal Herrian. Gaur egun Gipuzkoan bizi den musikari hau 1984an iritsi zen Donostiara literatura alorreko ikasketak zirela eta. Orduan izan zuen lehen harremana euskal musikarekin eta geroztik zeharkako flauta, uillean pipes, whistle eta Euskal Herrian ezagutu zuen albokarekin makina bat musika proiektutan parte hartutakoa da. *Alboka* eta *Aintzina* taldeetako kidea izateaz gain, euskal musikari ezagunak lagundu ditu bere soinutresnekin. Horien arteko batzuk dira Txomin Artola eta Amaia Zubiria, Xabi San Sebastian, Gorka Knörr, Benito Lertxundi eta Olatz Zugasti.

HALFWAY TO HELL

Hogeita hamar urtetik hona Euskal Herrian bizi den Alan Griffin musikari irlandarrak aurkeztzen duen proiektu honek 333 doinu biltzen ditu, hortik datorkio *Halfway to hell* izena (Infernura erdibidean). Alanek sinatutako, sortutako edota herri ondaretik hartu eta moldatutako doinuak dira. Bilduma zabal hau, iruzkinez eta oharrez hornituta dago, bere zabalean biltzen dituelarik, albokariaren doinutegirako dantza berrietatik hasi, eta kantutegietan musikaririk gabe heldu diren hitzentzat berariaz onduriko piezetaraino.

Halako etorri bikaineko gure irlandarrak ikuspegi kosmopolita eta ikasi batez aberastu du alboka, euskal ikonoetarikoa den tresna berezi hori, eta liburuan topa daitezkeen doinuetako aukeraketa bat izango da emanaldi honetan aurkeztuko dena.

AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria Auzokalte elkartearen bertan izango da, kontzertuaren izango den elkarte berean. Bertan musikariek egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

Kontzertua eta afaria: 20 euro

kontzertu honen laguntzaileak:

AUZOKALTE

ERGOIENGO AUZO
ELKARTEA


TIRIKITRAUKI
MUSIKA DENDA
esku-soinuak
9 ZERO SETTE
Lasarte-Oria
Tel/Fax: 943 372 617
www.tirikitrauiki.com